



**ERABAKIA, 2004KO MAIATZAREN 7KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILEKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN  
SAILBURUORDEARENA, IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZAN  
ETA EUSKERAREN IKASKUNTZAN LAGUNTZEKO LANPOSTUAK  
HORNITZEKO JARDUNBIDEKO DEIALDIA EGITEN DUENA (ZULEI)**

---

1994. urteko lehen hiruhilekoan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hezkuntza-sisteman zerbitzuak betetzen zituzten langileen egoerari buruzko azterketa egin zuen.

Azterketaren bidez, besteak beste, ikastetxe publikoetako zuzendaritzari laguntzazko zereginetarako baliaabideak eta irakasleei ikerkuntza eta laguntzazko zerbitzuak eskaini beharra ikusi zen, batez ere zuzendaritza eta administrazio eginkizunei dagokienez. Izan ere:

-ikastetxe horietako askotan dotazio eta ikasle kopuru handia zegoen.

-eta ez zegoen administrazio-lanetarako bertako langilerik.

Bestalde, azterketan ikusi zenez, sistemako maisu-maistren kopuru batek, euskararen ezagutza maila oinarritzkoa edota deuseza zuenez, zailtasunak zituen ohiko euskalduntze-programetan sartu edota irauteko, nahiz eta, lehenxeago edo geroxeago, gutxieneko gaitasuna lortu beharko duen.

Horregatik, 1994ko ekainean, Hezkuntza Sailak Maisu-maistren Kidegoaren funtzionario irakasleei zuzendutako Deialdia argitaratu zuen, adierazitako bi

alderdiak bateratzearen, alegia, laguntzazko eginbeharretarako baliabideak eskaintzea eta dagokionari euskara ikastea ahalbideratzea, IRALE egitarauak araututako baino era apalagoan, baina, beti ere, euskalduntzeko ahalmen bereko egitarauaren bidez.

Esperientzia hori burutu zen ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek nahiz adierazitako eginkizunak betetzeko aukeratu ziren pertsonen esperientziari buruzko balorazio ona egin zutenez, Hezkuntza Sailak 1995/1996 ikasturterako deialdi berri bat egitea ebatzi zuen.

Horregatik argitaratu zen Hezkuntza-administrazioarako sailburuordearen Erabakia, 1995eko ekainaren 27koa. Bertan, alderdi gehienak zehaztasun handiagoz arautu ziren, deialdia berria izanagatik ilunegi gera ez zedin.

Deialdi horretan, lanpostua guztiz ez zehazteko asmoa aipatzen zen, zuzendaritza-taldeak nahiz eskola-elkarte osoa inplikatu nahian ikastetxe publikoen antolamenduaren arloan gero eta autonomia gehiago lortzeko borondatean; horrela, deialdian ezarritako mugen barruan eta beren beharren arabera, lanpostu hori ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan hobeto egoki dadin.

1996ko uztailan antzeko programa baterako deialdia burutu zen. Hala ere, hezkuntzaren erreformaren ezarpenak Euskal Autonomi Elkartearen sortutako egoera berria kontuan izanik, aldaketa batzuk sartu ziren, deialdia ondo egokitzeke egoera horri.

Hurrengo ikasturteetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zenbait deialdi argitaratu zuen, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko irakaslegoari zuzenduta.

Hala ere, aurreko deialdien emaitzak ikusi ondoren, bidezkoa zirudien ZULEI programarako deialdi berri bat ateratzeak, aurrekontuaren eta irakasle kopuruaren arabera. Gainera, kontuan hartu behar dira hurrengo faktore hauek:

.irakasleen artean lortu zuen arrakasta haundia, eta horren eraginez, sortu ziren partehartzeko espektatibak.

.betetzen zuen funtzio garrantzitsua, bai Ikastetxeen lanetarako baita irakasleen euskalduntze-prozesuari dagokionez ere.

Arrazoi horiek ez dira datorren ikasturterako desagertuko.

Horregatik guztiagatik:

### **EBATZI DUT:**

ZULEI-04 programarako deialdia egitea, zuzendaritzari laguntza emateko eta euskara ikasteko lanpostuak hornitzeko, honako oinarri hauen arabera:

#### **Lehena.- Esparru objektiboa**

##### **a) Lanpostuen taxuketa**

Honako era honetan taxutzen dira deialdi honen helburu diren lanpostuak:

##### **1./-Iikastetxeko zuzendaritzari laguntza ematea.**

Horretarako, ikastetxeko zuzendaritza-taldeari dagokio jasotzaileei eginkizun zehatzak agintzea, beti ere, dagokion lurralde-ordezkaritzako Langileriaren Unitatea jakinaren gainean egonik eta eginkizun hauen artean:

\*Zuzendaritza eta administrazio arloko eginkizunetan laguntzea

\*Liburutegiari dagozkion eginkizunak

\*Laboratorioari eta, oro har, materialari dagozkionak

Jasotzaileak ezin izango dira, inola ere, irakaskuntza lanetan aritu, beti ere, ikastetxe barruko ordezkotzak betetzeko izan ezean, ordezkotza horiek ikastetxeko gainontzeko maisu-maistrei dagozkien heinean egokituko baitzaizkie eurei ere.

Adierazitako eginkizunetarako eguneko jarduna lau ordukoa izango da, goizez betetzekoak.

## **2./-Euskararen ikaskuntza**

2004eko irailatik 2005ko abuztura bitarteko epean benetako 450 eskola-ordu egiaztatu beharko dira, gutxienez.

Beraz, eginkizun horretan bi/hiru ordu emango dute eguneko, arratsaldez eta, 2004ko udaldian, ikastaro trinkoetan edo barnetegietan parte hartzea ahalbidetuko da gutxieneko ordu horiek lortzeko.

### **b) Lanpostuen kopurua eta Ikastetxeak**

Deialdi hau ebatzi baino lehen, lurralde ordezkaritzetako iragarki-tauletan jakinaraziko dira bai bete beharreko lanpostu-kopurua, bai eta dagozkien ikastetxeak ere. Ikastetxe horiek ikastolak, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak, helduen hezkuntzako ikastetxe publikoak, DBHko lehen zikloa irakasten den bigarren hezkuntzako institutuak, nahiz irakaskuntzari laguntza Zerbitzuak izan daitezke.

Langileen kopuruaren eta hezkuntza sistemaren beharrianen arabera finkatuko dira horiek.



Administrazio-lanen arduraduna daukaten ikastetxeetan ez da ZULEI programako lanposturik izango.

### **Bigarrena. - Esparru subjektiboa**

Deialdi honetan Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, eta bai mugagabeko lan-legepeko langileek ere; beti ere jardunean egonik eta euren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan betez gero.

Era berean, egonkortasuna duten bitarteko funtzionarioek, beti ere jardunean daudenak eta Bosgarren Oinarrian adierazitako egoeraren batean egonez gero partu ahal izango dute deialdi honetan.

Edozein modutan ere, Irale egitaraurako onartuta dauden maisu-maistrek ezin izango dira deialdi honetarako hautatu. Alderdi horri dagokionez, berdin-berdin geratuko dira kanpoan Iralen onartuta egonik parte hartzeari uko egin diotenak.

### **Hirugarrena. - Eskabideak**

#### **a) Eskabidea**

2004ko maiatzaren 31ea arte, berau barne delarik, interesdunek eskeidazkia bete beharko dute, deialdi honetan parte hartzeko.

Eskabidea Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari zuzenduko zaio, Sailaren edozein Lurralde Ordezkaritzetan edo 30/1992 Legeak, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzkoak, 38.4 atalean adierazitako edozein egoitzatan.

**b) Finkapenarekiko uko egitea**

Destinoa daukaten ikastetxean plazak deitzekotan, ahalbidetu egingo da eske-idazkian zuzeneko esleipenari uko egitea.

**c) Ikastetxeetarako borondatezko eskabidea**

Eske-idazkian eskatzailearentzat intereseko diren ikastetxeak azalaraziko dira, Barruti batean, Lurralde Historiko batean edota Autonomia Erkidegoaren barnean dauden guztiak ere aukeratu ahal izango dituelarik.

**d) Derrigorrezko esleipenaren gehienezko eremua**

Eskabidea behin aurkezturik, interesatuak, aurreko oinarrian adierazitako betebeharrak betez gero, ezin izango dio uko egin hautaketa-prozesuan parte hartzeari.

Hala eta guztiz ere, partehartzaile bakoitzak finkatu ahal izango du kokapenaren gehienezko eremua; edozein kasutan ere, barruti bat baino gutxiagokoa izango ez dena; eremu horretan plazarik lortu ezean, beste eremu bateko derrigorrezko esleipenik ezingo zaiolarik egin.

Kokapen eremurako eskaera-eza dagokion Lurralde Historikorakotzat hartua izango da.

Derrigorrezko esleipenaren eraginetarako, ez du inolako garrantzirik izango, borondatez eskaturiko ikastetxeren bat aukeraturiko esleipenaren gehienezko eremuan kokaturik ez egoteak.

## **Laugarrena. - Hautaketa-batzordea**

Lurralde historiko bakoitzean, honako hauek osatutako batzordeak ebatziko du deialdia:

\*Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordea edo beronek izendaturikoa, Batzordeburu izango delarik.

\*Lurralde Ordezkaria.

\*Lurralde Ordezkaritzako Baliabideen Burua.

\*Lurralde Ordezkaritzako Langileen Burua.

\*Lurralde Ordezkaritzako Pedagogi Berrikuntzarako Burua.

\*Lurralde Ordezkaritzako Ikastetxeen Burua.

\*Lurralde Ordezkaritzako Langileriaren Unitateko bi ordezkari.

\*Sektorean ordezkaritza-maila handiena lortu duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat.

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeak, hiru batzordeek proposatuta eta hautaketarako beharrezko diren agiri guztiak aztertu ondoren, ordezkaritzetako iragarki tauletan argitaratuko du behin betiko erabakia.

## **Bosgarrena. - Lehentasun-hurrenkera**

Lurralde Historiko bakoitzeko maisu-maistrek beren lurraldeko ikastetxeetarako diren lanpostuak lortzeko orduan lehentasuna izango dute beste lurralde batzuetako eskabide-egileen ondoan.

Lurralde Historiko bakoitzean bete beharreko lanpostuak eskabide-egileei esleitzeko orduan, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio:

**a)Lehen lehentasuna:** hizkuntz eskakizunaren eraldaketa izandako lanpostuetako Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioak eta mugagabeko lan-legepeko langileak, berehalako derrigorrezkotasun datadun 2.Hizkuntz Eskakizuna egokiturik, betiere hizkuntz eskakizunik egiaztaturik ez dutenean edo 1. Hizkuntz Eskakizuna egiaztaturik izanda, IGA gaikuntza iragankorraren jabetzan ez daudenean.

**b)Bigarren lehentasuna:** derrigorrezko dataren eraldaketa izandako lanpostuetako Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioak eta mugagabeko lan-legepeko langileak, berehalako derrigorrezkotasun datadun 1.Hizkuntz Eskakizuna egokiturik, betiere inolako hizkuntz eskakizunik egiaztaturik ez izanik.

**c)Hirugarren lehentasuna:** ezabatuak geratu diren Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioak eta mugagabeko lan-legepeko langileak, inolako hizkuntz eskakizunik egiaztatuta ez badute, baita behin betiko destinoa izanda 2003 -2004 ikasturterako planifikazioaren arabera ezabatuak gera daitezkenak.

**d) Laugarren lehentasuna:** Aurreko ataletan ez dauden Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioak eta mugagabeko lan legepeko langileak.

**d)Bostgarren lehentasuna:** Egonkortasuna duten bitarteko funtzionarioak.

Adierazitako talde bakoitzaren barruan, lanpostu baino eskabide gehiago egonez gero, partehartzaileen hurrenkera Maisu-maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa betetako denboraren arabera ezarriko da.

Lan-legepeko kontratu mugababedun langileek parte hartuko balute, langilego honentzat bereziki, Ikastetxe Publiko edo Publifikatutan edota Ikastolatan izandako mugagabeko lanpostuetako denpora legez finkatuko da irizpidea.



Puntuazio-berdinketa kasuetan, lehenengo sartu dena hautatuko da eta, horien artean, puntuaziorik gehien lortu duena.

Puntuazio-berdinketan kontratu mugagabedun lan-legepeko langilerik balego, erasandakoen artean ebazteko, Ikastetxe Publiko edo Publifikatuetan Maisu-maistren Kidegoari dagozkion irakas-lanpostuetako zerbitzueldirik luzeenaren irizpidea izango da kontuan.

Egitarau honetan sartzeko, hizkuntz eskakizunik egiaztatuta ez dutelarik aurreko ataletan aurrikusitako egoeretan ez daudenen gainontzeko Maisu-maistren kasuan, bai eta behin-betiko destinorik gabeko karrerako funtzionarioen kasuan ere, bete gabeko plazak baleude, dagokion Batzordeak aztertuko du, haien ezaugarriak eta hezkuntz sistemaren beharrak kontutan izanik. Horretarako haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta dbh-Ierako 2004/2005 ikasturte hasierako esleipena egiteko arautegiak finkatzen dituen irizpideak erabiliko dira.

Aurreko ikasturteetan Zulei edo egiaztatu gabeko hizkuntz eskakizundun irakaslegoarentzako euskalduntzeko deialdian parte hartu zutenak hautatuak izan ahal dira, gainontzeko eskatzaileen esleipenaren ostean, bete gabeko lanpostuak geratuz gero soilik. Zerrenda lanpostu horietan urte gutxien eman dituztenekin hasiko da eta, ondoren, bosgarren oinarri honetan ezarritako lehentasunak eta irizpideak aplikatuko dira.

### **Seigarrena. - Lanpostuak esleitzeko era.**

Egitaraua beteko den ikastetxeen zerrenda eta esleitu beharreko lanpostuena argitaratutakoan, honako urrats hauei jarraituko zaie:

- 1)-Honako irizpide hauen arabera taxutuko da eskatzaileen zerrenda:

1ºLehentasunezko taldearena

2ºHorren barruan, karrerako funtzionario gisa urte gehien daramana eta lehentasunaren 4. Taldean zerbitzu denbora..

3ºBerdintasunik balego, lehenago sartu dena, eta, azkenik, puntuazio gehien lortu duena.

Lehentasunezko bost taldeetakoren batean sartuta ez dauden gainontzekoak, 2004/2005 ikasturte hasierako esleipen arautegian finkaturiko irizpideei jarraiki taxutuko dira.

2)-Lehen aldi batean, beren erreferentzi ikastetxean halako lanposturik ezarrita dauden maisu-maistrei esleituko zaie, baldin eta

-guztira esleitu beharreko lanpostu-kopurua kontuan izanik, zerrendaren barruan kokagune beretsua edo beherakoagoan egonez gero.

-eskubide gehiagoko pertsoneri esleitu ez bazaie.

-beren ikastetxean esleitzeari espreski uko egin ez badiote.

3)-Aurrekoaren ostean, gainontzeko partehartzaileei esleituko zaizkie soberako lanpostuak, eskabidean egindako eskarien arabera.

4)-Ondoren, hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko deialdia egingo da jendaurreko ekitaldian, oinarri honetako lehen atalean ezarritako hurrenkerari jarraiki.

5)-Eskatzaileen zerrenda amaitu eta oraindik lanposturen bat hutsik geratzen bada, beste lurraldeetakoei eskeiniko zaie, zerrenda bakarra osatuko delarik.

6)-Azkenik, banatu gabeko plazak esleituko dira, eskabidean adierazitako esleipenaren gehieneko eremua kontuan izanik, oinarri honen lehenengo idazatian ezarritako alderantzizko hurrenkeran.

### **Zazpigarrena. - Izendapenak**

Erabaki honetan ezarritakoaren arabera lanpostua lor dezaten maisu-maistrek, zerbitzu-eginkizunetako erregimenean izendatuko dira 2004/2005 ikasturterako behin-betiko destinoa izanez gero, lanpostua eta behin-betiko destinoa gordetzeko eskubidea izango dutelarik.

Behin-betiko destinoa izan ezean, behin-behineko destinoz izango dira izendatuak 2004/2005 ikasturterako.

Erabaki honetan ezarritakoaren arabera lanpostua lor dezaten bitarteko funtzionarioak lanpostu hauetan izendatuko dira 2004/2005.

### **Zortzigarrena. - Baldintzak eta jarraipena**

Helduen hezkuntzako ikastetxe publikoko lanpostuetan, derrigorrezko bigarren hezkuntza irakasten den Institutuetako lanpostuetan nahiz irakaskuntzari laguntza zerbitzuetako lanpostuetan aritzeak ez dakar deialdi honetako gainontzeko plazei dagokien ordainsaria baino gehiagorik.

Egitarau honetan parte hartzeko hautatutako pertsonak espreski uko egin beharko diote, geroago, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan jasotako adinagatiko exentzia eskatzeari.

Bai hautatutakoak adskribatutako ikastetxea, bai eta ikasten duteneko euskaltegia ere, lantokizat hartuko dira ondorio guztietarako, lan-jardunaldia eta asistentzia barne.

Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Langileriaren unitateek egitarauan parte hartzen dutenen banakako jarraipena egingo dute, ikastetxeetako laguntza-zerbitzuak betetzen diren ikusteko.

Horretarako, deialdi honen bidez beteko diren lanpostuak dituzten ikastetxe publikoetako zuzendariak beren ikastetxeetan zerbitzuak betetzeko hautatutako en eginkizunen zerrenda zehatza bidaliko dute Lurralde Ordezkaritzara.

Bestalde, Pedagogi Berrikuntzako lurralde zerbitzuek euskara-ikaskuntzaren aprobetxamenduaz arduratuko dira. Horretarako, partehartzaileen asistentziari eta aprobetxamenduari buruzko banakako txostena eskatuko diete euskaltegietakozuzendariari.

Zerbitzu horiek, baita ere, arduratuko dira euskaltegietan egitarau honetarako hautatutako pertsonen artean talde homogeenok era daitezen ahalbideratzeaz.

Deialdi honetan parte hartzeak ez dakar Irale programaren barruan azterketarik egiteko onartua izateko eskubiderik.

Deialdi hau 2004 -2005 IRALE programan parte hartzeko behin - betiko lanpostuen esleipena burutu ondoren ebatziko da.

## **ERREKURTSOAK**

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, Hezkuntzako lurralde ordezkarietzako inagarki tauletan argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko maiatzaren 7an.

**Koldo Arrese Garcia**

**ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU SAILBURUORDEA**